

# - Arazerixan -

## JOSTAILU TRUKE



**G**abonak datozela eta, Txaloka udal ludotekatik hirugarrenez jostailu truke egitasmoa jarriko dugu martxan. Egitasmo honen helburua krisiari aurre egitea, jostailuak berrerabiltzea, kontsumismoa murriztea, elkartasuna eta lankidetzaz bultzatzea eta jostailuei bigarren aukera bat ematea da.

Urtero lez, interesatuok 3 egun izango dituzue erabiltzen ez dituzuen jostailuak ludotekara ekartzeko (azaroak 28, abenduak 5 eta 12. Orduetgia: 16:45etatik 19:45ak arte).

**-BALDINTZAK:** Egoera onean eta osorik egon behar dira. Sexu bereizketa edo indarkeriaren aldeko jarrerak erakusten dituztenak ez dira jasoko (pistolak, ...). Jostailu txikiak multzoka trukatu dira (kanikak, kotxetxoak, ...) Haur bakoitzak gehienez 3 txartel jasoko ditu bueltan, nahiz eta jostailu gehiago ekarri daitezkeen.

Abenduaren 17an bildutako jostailuekin azoka burutuko dugu Txaloka udal ludotekan 11:00etatik 13:00etara. Azokara haur bakoitzak bere txartelak ekarri, eta jostailuengatik aldatuko ditu.

Aurten nobedade bezala, gurasoei zuzendutako hitzaldia antolatuko dugu. Gabonetan jasaten dugun publizitate kanpaina masiboen atzean dauden baloreez (sexismoa, indarkeria, ...) ohartu eta jostailu egokiak aukeratzeko laguntzeko. Besteak beste, jostailuen sailkapenak, erabilerak... Hitzaldiaz gehiago jakin nahian hizlaria elkarrizketatu dugu:

### “NOLA AUKERATU JOLAS EGOKIA” Hitzaldia

#### 1-Zer eskainiko diguzu abenduko hitzaldian?

Abenduko hitzaldian, pertsona batentzat jostailu egoki bat aukeratzeko orduan, kontuan izan beharreko irizpideak zeintzuk diren azalduko ditut. Horretaz gain baina, jolasa eta jostailua zer diren azalduko dut. Bai eta, haur bakoitzak, bizi duen garapen etapa bakoitzean, dituen jolas beharrak eta horiek asetzeko erabili genitzakeen jostailuak zeintzuk izan daitezkeen azaldu. Hitzaldian baina, tartea egongo da jostailu mota ezberdinak ezagutzeko, euskarazko jostailuen berri izateko, sexismoak eta publizitateak jostailuen merkatuan daukan eragina aztertzeke eta nola ez, guraso edo entzulearen zalantzak argitzeko.

#### 2-Nori zuzendua dago hitzaldia?

Hitzaldi hau batez ere, gurasoei edo familiako kideei zuzendua dago baina, edozein hezitzaile edo heldu ere ongietorria izango da.

Horretaz gain, jostailuek haurrengan duten eragina, Gabonetan jostailu gehiegi oparitzen ditugun, ... bezalako gaiak ere ikutuko ditugu. Beraz, animatu zaitezte eta etorri hitzaldira. Abenduaren 14ean izango da, asteazkena, Bidebarrietako Euskaldun berri gelan, 18:00etan. Haur zaintza zerbitzua egongo da Ludotekan.



ITSASO PAGOAGA ZALOÑA  
HIZLARIA